




ARAU OROKORRAK

- Zuetariko bakoitza aste osoko jardueretan jarriera egokia mantentzen konprometitzen da. Horrek zera esan nahi du:
 - Irakasleek esandakoari kasu egitea.
 - Azalpenetan arreta jartzea.
 - Parte hartzea, galderak eginez, ideiak aportatuz, kolaboratuz...

Esandako arauak betetzen ez badituzu, ikastetxean geratuko zara Ezagutu Barakaldo proiektuan parte hartu gabe



BASOAN ETA HIRIAN...

- Gogoan izan zuhaitzak eta landareak izaki bizidunak dira: errespeta itzazu!
- Basoan, dena utzi behar dugu aurkitu dugun moduan, edo ahal bada, hobeto. Herri zikin batean bizi nahi ote duzue?
- Ez da ohitura polita nahi dugun guztia hartzea (loreak, adarrak, fruituak...). Aste guztietan lagun asko ibiltzen gara handik, eta denok gauza bera egitekotan, basamortu bilakatuko genuke gure ingurunea.

BARAKALDOKO INGURUNEA
ALTXOR BAT DA.
ZAINDU DEZAGUN!



OGITARTEKOAK, EDARIAK ETA HONDAKINAK

Komeni da ogitarteko bat eramatea hamaietako egiteko.

- Hondakinak gordetzeko poltsa bat eramango dugu.
- Edateko... ura: ez dago edari sanoagorik. Gainera, botilak beste behin bete ahal dira.
- Hondakin-poltsak zakarrontzi edota zabor edukiontzietara botako ditugu.



BARAKALDO GARBIAGO, GERO ETA POLITAGO!

ARROPA ETA NORBERAREN GAUZAK




- Eguraldiaren arabera, oinetako eta jantzi erosoak ekarriko ditugu. Ez da komeni kirol-zapatilak edo mendiko botak berri-berriak izatea, oinetan minik ez sortzeko.
 - Ez ekarri ez sakelako telefonorik ez musika aparailurik (MP3 / MP4 edo antzekoak).
- Ekarki txubaskeroa edo aterki tolesgarria, ez bustitzeko euria izatekotan.

NEURGAILUAK ETA GAINERAKO MATERIALAK

Zaindu egin behar ditugu erabiliko ditugun aparailuak eta materialak (ordenagailuak, iparrorratzak...), Barakaldoko ikastetxe guztiek erabiltzen dituztelako. Beraz...:

- Norbaitek zerbait apurtzen badu tontakerietan ibiltzeagatik, ordaindu edo ordezkoa ekarri beharko du.
- Aparaturen bat erabiltzerakoan, ez baditu irakaslearen aginduei jarraitzen, ezin izango du erabili.





NIRE KONPROMISOA

Irakurri egin dut eta arauak betetzen konprometitzen naiz. Horregatik, dokumentu hau sinatzen dut.

Barakaldon,ko.....aren.....(e)an

SINATUA:

NORBERAREN
NORBERAREN
KONPROMISOAK
KONPROMISOAK



ezagutu

Barakaldo